



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala

|| Hirugarren Sektorre
|| Sozialaren Legearen
|| 10 gako

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Hirugarren sektore sozialari buruz Euskadin dagoen lehendabiziko legea da eta **mugarri adierazgarria da gure sektorean.**

Izan ere, hirugarren sektore sozialaz hitz egitean (HSS), juridikoki aitortutako definitzio bat izan dezakegu orain; positiboki definitzen gaitu, sektore osoa barne hartzen du eta **nortzuk eta zenbat garen** jakinaraztea ahalbidetzen digu.

Horrela, **Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala** osatzen dugun erakundeek honako ezaugarriak dauzkagu:

- **Gizarte ekimenekoak** (ekintza boluntarioa; gizarte zibilaren parte gara -hartatik eta harentzako sortuak-, irabazi asmorik gabekoak eta parte-hartzaileak).
- **Esku-hartze sozialaren** arlokoak (gure jarduera gizarte zerbitzuen arloan burutzen dugu, enplegurako aukera sustatzen, arlo edo sistema ezberdinen arteko elkarre-raginerako espazioak sortzen -soziosanitarioak, soziolaborala...- eta garapenerako lankidetzak ahalbidetzen).
- **Egoitza eta jarduera Euskadin ditugunok.**
- Helburu nagusia honakoa dugunok: babesgabetasun edo gizarte bazterkeria egoeran bizi diren edo berdintasun eza, urritasuna edo menpekotasuna duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateen **gizarteratzea, garapenerako lankidetzak eta eskubideen egikaritze efektiboa** sustatzea.

1

Euskadiko HSSren aitortza juridikoa.



EHSSri buruz ari garelara, **juridikoki aitortutako definizio** bat har dezakegu oinarri, **sektoreko erakunde guztiak barne hartzen dituen**a, analisi, proposamen, politika, errolda eta abar guztiek erreferentzia egin ahal diotena... **eta gure nortasuna sendotzen eta nor garen, zenbat garen eta gizarteari zer ekarpen egiten diogun jakiten laguntzen diguna** (gure ekarpen diferentziala).

2

EHSSaren definizio positiboa, ekimen eta esku-hartze sozialaren arloko erakunde gisa.



Enpresekin alderatuta, irabazi asmorik GABEKO erakunde gisa (irabazizko sektore pribatua); edo, sektore publikoarekin alderatuta, gobernuz KANPOKO erakunde gisa definitu beharrean, **legeak funtsezko 3 oinarri kontuan hartuta definitzen gaitu**: **a)** Gure helburu nagusia, **gizarteratzea, garapenerako lan-kidetza eta eskubideen egikaritze efektiboa sustatzeko** helburua (2. Artikulua); **b)** gizarte ekimeneko erakundeen berezko ezaugarriak (3. Artikulua); **c)** eta **berezko ditugun jarduerak**, hau da, esku-hartze sozialaren arlokoak.

Gure helburu nagusiak eta gure ezaugarri diren jarduerak gure egitekoarekin dute zerikusia, beraz, bigarren aspektua **beste sektore batzuetatik bereizten gaituzten funtsezko bost ezaugarri dagokie**, hala nola: **a)** gure **gizarte oinarria**, zati handi batean edo osorik **boluntariak** osatua; **b)** lurraldearekin eta pertsonekin daukagun etengabeko **konpromisoa eta lotura**, haien zerbitzura baikau-de (batzuetan haiek dira erakundeak eratu eta gobernatzen dituztenak); **c)** beste sektoreekiko daukagun **autonomia**; **d)** edozein onura berriz ere egitekoan inbertitzeko daukagun betebeharra (edo are hobeto, positiboan, egitekoa eta **denon ongizatea helburu izatea**, onura ekonomikoak beharrean); **e)** erabakiak hartzeko erabiltzen ditugun **dinamika parte-hartzaileak**.

Gure nortasunaren funtsezko elementuak dira bost horiek, eta hain zuzen ere horregatik planteatzen zaizkigu erronka batzuk, 6. Artikuluan jasotakoak, legearen oinarri gisa erabilitako jarduera-printzipioekin zerikusia duten praktikak proposatzerako orduan.

3

Elkarrizketa zibilaren printzipioa sendotzea eta zabaltzea.



Legearen bigarren kapitulua (7. Artikulua) EHSSko sare eta erakundeen elkarrizketa zibilari eta honakoetan egiten duten parte-hartzeari buruzkoa da: Euskal administrazio publikoen kontsulta organo eta ekimen puntualetan (8. artikulua); eta Ekonomia eta Gizarte arloko Euskal Kontseiluan (9. Artikulua).

Elkarrizketa zibilaren printzipioaren arabera, legeak aitortzen du **erakundeek –eta horien bidez esku-hartzea jasotzen duten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateek- daukaten eskubidea bere fase guztietan eragiten duten politika publikoetan parte hartzeko, baita exekuzio fasean ere** (beraz, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran).

Legearen arabera, elkarrizketa zibila zera da: sektore publikoaren eta erakundeen eta EHSSko sareen arteko kolaborazio eta elkarrizketarako prozesu formal bat. Horren helburua da EHSSren eta sektore publikoaren ekimenak eta politika sozialak bideratu, sustatu eta ebaluatzea. Ekimen horiek zehatzak izan behar dira, lankidetza bidez edo aldeetako edozeinek sustatzeko, eta lehentasunetako bat izan behar da honakoa: babesgabetasun egoera handienez dauden pertsona, familia, kolektibo eta komunitateen eskubideak aitortzea.

Urritasunaren arlotik datorren printzipio hori EHSSko erakunde guztietara hedatzen du legeak; baita elkarrizketa zibila sektore publiko osora zabaltzeko agindua ere, maila exekutiboan (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Tokiko Erakundeak) eta lege mailan (Eusko Jaurlaritza eta Batzar Nagusiak), organo elkargokideak sustatuz, hala nola Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak, edo antzeko beste tresna batzuk, eta EHSSren parte-hartze erreal eta eraginkorrean sakontzera bideratutako neurriak hartzea, kontsultaz harago, EHSSrekin eta gizarte esku-hartzearekin erlazionatutako politika eta ekintza-ildoetan.

4

Kooperazio publiko eta sozialaren eredu mistoa aitortu eta sustatzea .



Legearen hirugarren kapitulua esku-hartze sozialaren arloko erantzukizun publikoaren sistemetan kooperazio publiko eta soziala burutzeari buruzkoa da, kooperazio planteatuz, honakoetan (10. artikulua): **a)** sistemen arteko **sistema eta interakzio eremuen kudeaketa** (11. Artikuluan garatzen da); **b)** **zerbitzuen horniketa** (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza), 12. Artikuluan garatzen dena, bereziki erakundeek ematen dituztenean (12.2), eta edozein kasutan, jarduera berezia denean (12.3); **c)** **erreferentzia funtzioa eta kasuaren koordinazioa** (13. artikuluan garatzen da).

Horrela zehazten da elkarriketa zibila zerbitzuen hornidura arloan, eta gizarte arloko esku-hartze osora zabaltzen da **erantzukizun publikoko zerbitzuen eredu mistoa, publiko-pribatua**, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak aurreikusten duena. Gainera, horrek kontuan hartzen du **kudeaketa publiko zuzenaren eta gizarte ekimenaren bidezko kudeaketaren lehentasuna** (12/2008 Legearen 5 eta 7, a artikulua).

5

Kontratazio publikoaren esparrutik kanpoko **kooperazio publiko-pribaturako tresnak** sendotu eta zabaltzea: lankidetzarako itun, hitzarmenak eta akordioak.



Eredu mistoarekin bat etorrira, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak esku-hartze sozialeko esparru osora zabaldu eta sendotu egiten du **hitzarmen (sozialeko) erregimena**, “**herri administrazioen kontratazio-araudian araututako hitzarmenezko kontratu-modalitateak bereizita**”, (12/2008 Legearen 60.1 eta 61.1 artikulua), baita **irabazi asmorik gabeko erakundeekin lankidetzak-hitzarmen eta akordioak** ere (12/2008 Legearen 69. Eta 70. Artikuluak).

6

**Euskal administrazio publikoe-
kin lankidetzan dihardugun
erakundeen betebeharrak sen-
dotzea eta garatzea.**



Legeak **betebehar garrantzitsu batzuk** ezartzen dizkie euskal herri adminis-
trazioekin lankidetzan, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketan edo
interes orokorreko beste gizarte jarduera batzuetan dihardugun EHSeko
erakundeei. Horiek ez betetzeak kooperazio eta kolaborazio hori bertan behera
geratzea ekar dezake (16. artikulua).

Hori egitea bat dator erakundeei honako eskubidea aitortzearekin: politika publi-
koetan fase guztietan parte hartzea, kooperazio eta kolaborazioa formalizatzeko
aurreikusitako tresnekin.



7

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia bat eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren sustapenerako neurriei buruzko urteko Txostena lantzea.



Legeak laugarren kapitulu osoa eskaini dio EHSSren sustapenari. Lehenik eta behin, **EHSSren Estrategiaren sustapena** aipatzen du (17. Artikulua), **lau urteko indarraldia** izango duena; Eusko Jaurlaritzak egingo du, EHSSko sare eta erakundeekin batera, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bidez.

Estrategiaren **oinarria diagnostiko bat** izango da (liburu zuria edo antzekoa). **Eusko Jaurlaritzak bere Sailen bidez burutzen dituen ekintza eta neurriak hartuko ditu barne, eta honako aspektuak izango ditu kontuan, gutxienez:**

- a)** Erakundeen gizarte oinarria eta parte-hartzea; **b)** erakundeen sendotze eta kudeaketa; **c)** EHSSren egituratzea eta erakunde arteko kolaborazioa;
- d)** iraunkortasuna, autonomia, gardentasuna eta kontuak ematea;
- e)** inbertsioak eta azpiegiturak; **f)** sektore publikoarekiko kolaborazioa;
- g)** enpresekiko kolaborazioa; **h)** EHSSren sustapena, fiskalitatea eta aitortza.

Foru Aldundiek eta tokiko erakundeek EHSS sustatzeko estrategiak landu beharko dituzte, beren eskumeneko lurralde eremuekin batera. Edonola ere, EHSSren sustapen estrategiarekin bat etorri beharko dute (18. Artikulua).

Gainera, legeak adostu du Eusko Jaurlaritzak **urteko txosten publiko bat egitea sektore publiko eta pribatuak EHSS sustatzeko neurrien inguruan** (19. Artikulua). Eta euskal administrazio publikoen aldetik honakoa aurreikusi du:

- a)** EHSSren sustapena burutzen duten **beste eragile batzuekiko kolaborazioa sustatzea**, bereziki aurrezki kutxa, banku fundazio eta bestelako finantza erakunde batzuei dagokienez (20. artikulua); **b)** azpiegituren garapena, **inbertsioak egitea, kudeaketa hobetzea eta erakundeen jarduera ekonomikoa sustatzeko neurriak hartzea** (21. artikulua).

8

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren **aitortza** eta haren ekarpena sustatzea, eta sektorea zein erakundeen arteko lankidetzaz **egituratzea**.



Legearen 22. artikulua **EHSSko sareen eta erakundeen ekimen bateratua** planteatzen du, herritar eta gizarte eragile guztien artean EHSS eta bere ekarpena ezagutarazteko, haren ekimen ezberdinen berri emanda (bereziki komunikazio arloan).

9

Sektoreen arteko sinergiak eta osagarritasuna sustatzea.



Legeak positiboki baloratu du sektoreek egindako ekarpen diferentziala, eta horien osagarritasuna bilatzen du; gainera, horien arteko sinergiak sustatzen ditu, eta ildo horretatik, honakoak planteatzen ditu (kooperazio publiko eta sozialaren eredu mistoaren inguruan adierazitakoaz gain): **a)** Beste sektore batzuen sustapenak **EHSSean daukan eragina ebaluatzea** eta kontuan hartzea EHSSak egiten duen ekarpena esku-hartze sozialaren arloko erantzukizun publikoko eremu eta espazioen plangintza eta ebaluazioan (23. Artikulua); **b)** **Enpresen eta EHSSren arteko lankidetzaz sustatzea** (24. Artikulua).

10

Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia sortzea.



Legeak **Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia** sortu du, **EAEko Administrazio orokorraren tresna tekniko gisa**. HSSari buruzko informazio eta ezagutzak bildu, eguneratu, sortu eta zabaltzeaz arduratuko da, eta, besteak beste, **EHSSari buruzko biurteko txosten zabal eta osatu bat** egingo du. Bere atribuzioen garapenean, **Behatokiak EHSSeko sare eta erakundeekin lan egingo du** gertutik.

ZERGATIEN AZALPENAK.

I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.

1. Xedea.
2. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeak (EHSS).
3. Ekimen sozialeko erakundeak.
4. Esku-hartze sozialeko jarduerak eta interes orokorreko jardura sozialak.
5. Errolda.
6. Jardura printzipioak.

II. Kapitulua. Elkarrikeria zibila eta sektore publikoarekiko eta beste eragile batzuekiko tresnak edo elkarrikeriarako eremuak.

7. Elkarrikeria zibila.
8. Euskal administrazio publikoen kontsulta-organoetan eta ekintza horiekin erlazionatutako ekimen puntualetan parte hartzea.
9. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean parte hartzea.

III. Kapitulua. Esku-hartze sozialaren arloko politikak burutzeko kooperazioa eta kolaborazioa.

10. Lankidetzaren erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko elkarrikeraginerako guneetan.
11. Kudeaketarako kooperazioa.
12. Zerbitzuen hornidurarako kooperazioa.

13. Erreferentearen funtzio eta kasuaren koordinaziorako kooperazioa.
14. Interes orokorreko beste jardura sozial batzuetarako kolaborazioa.
15. Administrazio publikoen eta EHSSren arteko kooperazio eta kolaborazioa formalizatzeko tresnak.
16. Euskal administrazio publikoekin lan egiten duten EHSSko erakundeen betebeharrak.

IV. Kapitulua. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzea.

17. EHSSren sustapenerako estrategia.
18. Euskal administrazio publikoen beste maila batzuk sustatzeko neurriak.
19. EHSSren sustapenerako neurrien inguruko txostena.
20. Erakundearen interes orokorrerako jardueren sustapenerako ekintzak burutzen dituzten eragileekiko babesak eta kolaborazioa, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraz harago.
21. Babes neurriak azpiegituren garapenerako, inbertsioak egiteko, kudeaketa hobetzeko eta erakundearen jardura ekonomikoa bultzatzeko.
22. EHSSren aitorpena eta ekarpena, erakunde eta sareen arteko kolaborazioa eta egituraketa sustatzea.
23. EHSSren ekarpena kontuan hartzea eta sektore publikoak EHSSren inguruan hartutako neurrien eragina ebaluatzea.
24. Enpresen eta EHSSren arteko kolaboraziorako sustapena Administrazio Publikoen aldetik.
25. EHSSren Euskal Behatokia.